



Maria Angeles  
Ibarguren andoaindar  
argentinarraren  
lekukotza

2017ko azaroaren 10a, 543 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

EUSKARAREN TRANSMISIOA

## Bi milatik gora lagunek eman zuten botoa, igandean

Andoaingo herri ekimenak ontzat ematen ditu emaitzak, etorkizunerako urrats berriak iragarritz.

“Andoain Esan taldeko gizon-emakumeok eskerrak eman nahi dizkiegu, eguraldiaren aurpeirik gogorrenari kementsu erantzunez, herrian jarritako hiru hauteslektara gerturatu eta bere botoa hautetsontzian sartzera pozik eta era baketsuan gerturatu ziren herriki-deei”. Astelehenean bertan Andoain Esan taldeak esker ona adierazteko oharra kaleratu zuen. Eguraldia kenduta, normaltasunean igaro zen herrian eta herritik antolatutako kontsulta. Dozenaka bolondres aritu ziren lanean Zumea plazan, Kaleberrian eta Agustin Leitza kalean. Eta ehunka izan ziren



Igande eguerdian Zumea plazan hautesleku lanean ari ziren bolondresak. Hautesleku horretan hotzari, haizeari eta euriari aurre egin behar izan zioten.

botoa emanek deialdiari erantzuna eman ziotenak.

Bidean urrats berria eman dutelakoan daude, Andoaingo kontsultaren sustatzaileak.

Kontsultaren biharamunean

EH Bildu, EAJ-PNV eta Ahal Dugu Podemos alderdiek herri galdeketa baloratu zuten, guztiek ere bolondresen lana nabarmenduz.

[ANDOAIN, 5-8. ORR.]

### A5 ANDOAIN

- Errolda: 12.306 pertsona.
- Botoak: 2034 boto (%16,5).
- Bai: 1871 boto (%91,98).
- Ez: 127 boto (%6,24).
- Zuriak: 33 boto (%1,62).
- Nuloak: 3 boto (%0,13).

## Xistera finalak Andoainen

Arrate pilotalekuan Avia-Xistera txapelketako finalak jokatuko dira larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Jubenil mailako finalerdiak jokatuz zuzen joan zen igandean, eta segidan senior mailako txanda heldu zen. Gazteleku pilota elkarteak, Andoaingo Udalak eta Euskal Herriko Xistera elkartearen Kirol klubak antolatu dute Andoaingo txapelketa, elkarlanean. Bertaraten ez denak, finala Streaming bidez zuzenean ikusi ahal izango du [www.xistera.eus](http://www.xistera.eus) webgunean sartuta.

Xistera proiektua, zesta punta biziberritzeko eta eskolak indartzeko tokian tokiko kirol elkarteek sortu zuten 2013an, beren indarrak batu eta gero.



Larunbat arratsaldean, 18:00tan, Arrate pilotalekuan Andoaingo AVIA-XISTERA Txapelketako finalak jokatuko dira bi mailatan, gazteen mailan eta nagusien mailan.

Argazkian, Andoaingo Gazteleku elkartearen aritzen diren zesta puntako pilotari gazteak, 9 urtetik 15 urte bitartekoak. Zutik, Jose Mari

Gonzalez irakaslea, Adur Iturralde, Uxu Gonzalez, Igor Lizasoain irakaslea, Unax Malo, Julen Barrio eta Mikel Canflanca irakaslea.

Belauniko: Eneko Zubeldia, Julen Sukunza, Amair Abrego, Ilun Tolosa, Beñat Gaston eta Hodei Zuriarrain.

## Bizilagunak egitasmoa Urnieta eta Andoainera zabaltzeko deialdia



Bizilagunak jatorri ezberdineko biztanleak elkar ezaugu eta bazkari baten bueltan elkartzeko egitasmoa da. Eskualdera zabaldu nahi dute, Euskadi osoan azaroaren 19an burutu den ekimena.

[URNIETA, 4. ORR.]

## Mendi Astea



[KIROLA, 11. ORR.]

## Tailerra Urnietan, larunbat honetan

Larunbat honetan **autodefentsa feminista tailerra** eskainiko dute Saroben, Emagin elkartearen eskutik. Interesa duten emakumeek azaroaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, Bertan bulegoetan.

[AGENDA, 12. ORR.]



## EUSKARAREN TRANSMISIIOA

# “Orain biloba da nire euskara irakasle onena”

Itsasondon jaio eta Andoainen bizi zen Maria Angeles Iburguren, baita euskaraz bizi ere. Baina oso gazterik joan zen Argentinara, Necocheara, eta euskaraz egiteko ohitura galdu zuen; ez ordea hiz-

kuntzarekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna. Orain, alabarekin bizitzera etorri da Hernanira, eta euskara berreskuratzen ari da. Alabak berak, eta bilobak bereziki, laguntzen diote horretan.

Argentinarra dauka azentua Maria Angeles Iburgurenek. Baina euskal herritarra da, Itsasondokoa jaiotzez, eta Andoainen bizi izandakoa. Ia euskara hutsean egiten zuen txikitant, eta euskara ikasten ari da orain; berreskuratzen, hobe esanda. Necochean igarotako 60 urteetan galdutako ohiturari, berriro heltzen.

Oso gazte zela, zortzi urterekin, joan zen Iburguren Argentinara, gurasoekin eta anai-arrebekin, Frankismotik ihesi: “errepublikazalea zen aita, eta pertsegitu egin zuten. 1952an egin zuen berak ihes Necocheara. Lurrak erosi, etxea egin, eta hurrengo urtean joan ginen gu”, dio Iburgurenek.

## “NECOCHEAN EUSKALDUN ASKO ZEGOEN, BAINA EGUNEROKOAN EZ GINEN EUSKARAZ BIZI”

Gogoan dauka nola, beraiek bizi ziren nekazal ingurunean, bizilagun asko ziren euskaldunak: “Necochean euskaldun asko zeuden, eta Euskal Etxea oso handia da han; euskara ikastaro batzuk ere eskaintzen zituzten. Baina egunerokoan, ezin genuen euskaraz bizi, eta galdu egin nuen pixkanaka”.

Ez, ordea, euskararekiko eta euskal kulturarekiko maitasuna: “ahizpak eta biok, beti jotzen genuen Euskal Etxera, eta euskara ikastaroak ere egin genituen. Nire alaba bertan hasi zen euskara ikasten, pixka bat. Ez ginen euskaraz bizi, baina bai euskal giroan. Euskarak interes handia pizten du Necochean, eta euskararen transmisioak familiaratik haratago joatea lortzen du, han”.

Maria Angelesek transmititu zion maitasun hori alabari, eta askotan egin zuten bidaia Euskal Herrira, elkarrekin.

Baina bidaietako bat, denboran luzeena, bakarrik egin zuen alabak: Bilbora joan zen, ikastera. “Hainbatetan Euskal Herrira etorri ondoren, esan



Maria Angeles Iburguren, AEKren lokalaren ondoan; bertan ari da, hainbeste maite duen euskara berreskuratzen.

*“Euskal Herrira bueltatzea eta euskara berreskuratzea, zirkulua osatzea bezala izan da niretzat, nire jatorrietara bueltatzea. Eta hori oso polita da”*

zidan: ‘ama, hau da nire tokia munduan’”, gogoratzen du Maria Angeles Iburgurenek.

Bilbon ikasi ondoren, Andoainera etorri zen bizitzera, eta Hernanira ezkondu zen azkenik. Duela lau urte etorri zen bera, alabaren pausoei segika, Necocheako ospitalean emagin izaritu ondoren, 37 urtez.

## “GARBI NEUKAN, BUELTATU NINTZENEAN, EUSKARA BERRESKURATU NAHI NUELA”

Bueltatuko zela bai, bazekien Iburgurenek: “baina beti pentsatu nuen Legazpira edo bueltatuko nintzela, familia bertakoa zelako. Baina Hernanin oso ondo hartu naute, jen-

de oso irekia da. Eta kultur aberastasun handiko herria da”.

Baina are garbiago zeukan, bueltatzean euskara berreskuratut nahi zuela: “beti diot, ez nintzela inoiz joan. Txikitant neukan hori guztia, euskara, nonbait egongo dela, eta berriro atera behar dudala. Oso polita da pixkanaka euskara berreskuratuz joatea”.

Horretarako ere, alabaren pausoei jarraitu die. Bilbon aritu zen alaba euskara ikasten, eta AEKn jarraitu zuen, Buruntzaldera etorri zenean: “bigarren maila dauka, eta nik ezin dut esan, baina diote oso ondo hitz egiten duela. Orain, mintzapraktikan ari da bera, eta ni naiz euskaltegian hasi dena”.

Urtebete darama Iburgurenek AEKn, “barruan nonbait” daukan hori ateratzen: “adinekoentzat oinarritzko ikastaro bat egin nuen aurrena, bilobekin euskaraz egitera bideratua

*“Bilobak oso ondo egiten du euskaraz. Hiru urte besterik ez dauzka, baina oso azkar eta ondo egiten du. Eta badaki nik ere euskaraz hitz egin nahi dudala”*

zegoena”. Eta berak ere, hein batean, nahi zuen hori: Udane bilobarekin euskaraz egin.

“Berak oso ondo egiten du euskaraz. Hiru urte besterik ez dauzka, baina oso azkar eta ondo egiten du. Eta badaki nik ere nahi dudala euskaraz hitz egin. Gustatzen zaio, amonak euskaraz egitea”, dio Iburgurenek irribarretsuz: “bera da nire irakaslerik onena. Zuzendu egiten nau, eta gaztelaniaz hasten naizenean, ez dit uzten, ‘horrela ez’ esaten dit”.

Bilobarekin euskaraz egiteko, eta euskaraz bizitzeko, asotean hiru egunez joaten da AEKra: “egunero ematen ditut aurrerapausoak, eta orain,

nabaritzen dut ulertu egiten diedala senide eta lagunei, eta nik ere hitz egin dezakedala”. Horretara animatzen dute AEKko irakasleek, eta baita herritarrek ere. Eta oso lagun-garria zaio, alabaren familia osoa euskalduna izatea: “giro euskalduna daukate familian, euskaraz egiten dute, eta euskal kulturaren oso errotuta daude”. Eta euskaraz bizi nahi du berak ere.

“Batuetan, niregatik, gaztelaniara pasatzeko joera izaten dute; baina eskatzen diet euskaraz jarraitzeko”, dio. Sentipen bereziak sorrarazten dizkiolako horrek: “zirkulua osatzea bezala izan da, nire jatorrietara bueltatzea. Eta hori oso polita da”.

## “NECOCHEAN ‘LA VASQUITA’ NINTZEN, ETA HEMEN, BERRIZ, ‘ARGENTINARRA’ NAIZ”

Izan ere, euskara “bizitzeko modu bat” da Iburgurentzat: “lurrarekin, jendearekin lotuta dago. Ikusten ditudanean herriaren sarreretan ‘Euskaraz bizi gara’ dioten kartelak, poza ematen dit. Horrek egiten du herri hau ezberdin, eta horretara bueltatu naiz Euskal Herrira; herri hau, jende hau eta hizkuntza hau berriro deskubritzera”.

Euskara ere berreskuratzen ari baita, baina azentu argentinarra galdu gabe, oraingo: “bilobak ere, gaztelaniaz hitz egiten duenean, azentu argentinarra dauka. Grazioso da. Hori nik transmititu diot. Joan eta etorriko bidea da hizkuntzarena, gure artean”.

“Argentinan, Necochean, *La vasquita* nintzen bertakoentzat; errespetu handia diete han euskaldunei, pertsona langilea eta adeitsuaren irudia daukate. Eta hemen, berriz, argentinarra naiz. Kurioso da. Ni sentitzen naiz hernaniarra, euskalduna eta argentinarra. Ez delako ahaztu behar, toki bakoitzean jaso dugun guztia”.



EUSKARAREN TRANSMIISIOA

# Etxeak du giltza

## EUSKARA HANKAZ GORA



## EUSKARA BURUZ GORA





## Trena bere bidetik atera zen

Larunbat arratsaldean, Urnietako tunelean, Hernani eta Andoain arteko bidea egiten ari zen tren bat bere bidetik irten zen.

Zorionez zauriturik ez zen izan eta bidaiariak onik irten ziren. Gertaerak zerbitzua hainbat orduz etetea ekarri zuen. Argitzear dago zein izan den gertaeraren sorburua.



Larunbatz geroztik argazkiko trena saihetseko errailan geratuta dago.

## Ordenantza fiskal berria

Urriaren 31ko ez ohiko osoko bilkuran 2018rako ordenantza fiskalak onartu zituzten. Bozketa atalka egin zen, eta orokorrean adostasuna egin zen alderdi abertzaleen artean. PSE-EE hainbat atalean aurka agertu zen. Nabarmentzeko datuak:

- +2,1 Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- +2 Musika eskola.
- +1,9 Kirol instalakuntzen abonoak eta sarrerak.
- +1,8 Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
- +1,8 Udal espazioak, erabilera pribaturako.

+1,8 Ehortze zerbitzuak, ibilgailuak geldiarazi, bide publikotik kendu eta ondorengo zaintza.  
= Ur-hornikuntzako zerbitzuan, estolderia zerbitzuan.  
= Baratze ekologikoen tasa.

### PRESIO FISKALAREN JAITSIERA ZABORRETAN

Birziklatzen duten familiek jaitsiera izango dute. Hiruhilekoan 26,5 euro ordaintzetik 25 euro ordaintzera igaroko dira. Horretarako hiru hilabete horietan edukiontzi marroia gutxienez 9 aldiz ireki beharko dute.

## EH Bilduren agerraldia

Beterri-Buruntzako EH Bilduk agerraldia egin zuen astelehen arratsaldean, aurreko agintaldiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) buruzagien aurkako auziperatze salatze. Zehazki, GHKko lehendakari ohi **Ainhoa Intxaurrendieta** eta Ingurumen diputatu ohi **Iñaki Errazkin** auzitara eraman nahi dituzte. Horren aurrean, EH Bilduko hautetsiek, erabakia "mendeku gosean baino ezin dugu kokatu" adierazi zuten. Agerraldian EAJ-PNV eta PSE-EEri kritikak luzatu ziz-

kieten, eta bi alderdi horiek gogorarazi zieten "bere momentuan hartutako erabakiak oso ausartak eta koherenteak izan zirela hauteskunde kanpainan adierazitakoarekin. Beraz, zilegitasun osoz hartutako erabakiak izan ziren".

Lasarten egin zuten agerraldian, besteak beste, **Mikel Izagirre** Urnietako zinegotziak eta **Ana Carrere** Andoaingo alkateak parte hartu zuten. Kritika egitearekin batera, auziperatuei elkartasuna adierazi zieten: "Auzi honetan ez zarete bakarrik egongo".

## Beldurrezko etxea



Urnietako ehundik gora gaztek parte hartu zuen Gaztelekuko hezitzaileek antolatutako beldurrezko etxean. Oso

balorazio positiboa egin dute: "Aurtengoan ere arrakasta handia duen ekintza izan da".

Urnietarrak eta andoaindarrak ekimenera gonbidatu nahi dituzte

# Bizilagunak egitasmoa

**Maixabel Soler** andoaindarra **Bizilagunak** ekimeneko partaideetako izan zen, iaz. Dinamizatzaile gisa jardun zuen, bertako eta atzeritik etorritako familien arteko zubi lanak egin zituen. Partekatatu zuten bazkaria oso esperientzia aberasgarria gertatu zela aitortu du, eta aurtengo bigarren aldiz beteko du funtzio hori, azaroaren 19an. Urnietarrek parte hartu izan dute ekimenean, eta aurtengorako ere deia luzatu nahi diete.

### Zein da dinamizatzaile baten zeregina?

Hasteko, bazkaria ospatu aurreko lanak egin behar izaten ditu. Bi familiekin harremanetan jartzen da eta beraiekin erabaki batzuk hartu behar izaten ditu. Nor izango den gonbidatzailea, nork egingo duen bazkaria, nork postrea eramanez, zer janari motak jarriko diren... Hori guztia lotzen joateko, noski, kontuan hartu beharrekoak izaten ditu bakoitzak zein ohiturak eta kulturak dauzkan, ea alergiarik edo bestelako arazorik ba ote daukaten... Konplikatu ematen du, baina ez da hala, batez ere bi aldeak eskuzabaltasunez hartzen zaituztelako, elkar topatzeko desiratzen egoten direlako.

Bazkaria heltzen den egunean, aurkezpen lanak egiten dituzte bitartekari horrek, eta aurreko bost minutuetan ezezagunen artean gerta ohi den hoztasuna ahalik eta laburren izaten saiatzen da.

### Zer moduzkoa izan zen zure bizipena iaz?

Oso aberasgarria. Bertako eta Saharatik etorritako familien arteko otordua egokitu zitzaizdan niri. Hasieran pixka bat urduri egon nintzen, detaile guztiakin arduratuta bainen goen. Baina berehala sortu zen giro polita. Saharako familiaren etxean bildu ginen. Beren herrialdeko jantzi tipikoekin hartu gintuzten, eta jaki berezietan hornitutako bazkaria prestatu zuten; bertako familiak postre berezia eraman zuten. Haurrak tartean zeuden eta giro jatorrean joan zen guztia; kimika sortu zen bi aldean artean, eta harrezkeren harremana mantentzen dugu guztiok.

Bizipena oso gomendagarria da, eta edonor animatuko nuke. Proba dezala aurtengo edizioan.



Maixabel Soler Bizilagunak ekimeneko partaideetako da.

*"Bizipena oso gomendagarria da, eta edonor animatuko nuke. Proba dezala aurtengo edizioan"*  
*Maixabel Soler*

### Zergatik da beharrezkoa Bizilagunak ekimena Urnietara edo Andoainera zabaltzea?

Maila pertsonalean oso bizipen polita eta aberasgarria delako, eta oso baliabide praktikoa delako estereotipoak eta aurreiritziak hausteko. Askok jakinmina sentitzen dugu kanpotik etorri diren horiekiko, nondik datozen, zer dela eta etorri diren, zein den euren kultura, pentsaera... Baina lotsa edo beldurratik horiek harremanetan jartzeko lehen pausoa eman gabe geratzen gara.

Behin muga hori gainditzea lortzen baduzu, konturatzen zara eurak ere bertako jendea ezagutzeko desiratzen daudela, bizitzeko hautatu duten herriaren integrazteko. Azken batean, konturatzen zara hementxoak izan, hangoak izan edo edonongoak izan, nahiko antzekoak garela guztiok ere. Izaera, arazo, kezka, ilusio... maiz berdintsuak dauzkagu.

### Zerk erakarri zintuen Bizilagunak bezalako egitasmotik?

Andoaingo Caritas elkartearen laguntzaile gisa aritu izan naiz zenbait urtetan, eta gertuko harremana eduki dut migratzaile askorekin. Beti motibatu izan nau kanpotik datozenei elkartasuna erakusteak. Azken batean, euskaldunak ere migratzaileak izan gara, eta segitzen dugu izaten.

Badakigu zer den ezezagun zaizun herrialde batean bizitzeko jartzea, eta bertakoek gertutasuna eta laguntza behar izatea.

### BIZILAGUNAK EKIMENA

#### Zer da?

Bertako eta atzeritik etorritako norbanakoek edo familiek ospatzen duten otordua.

#### Noiz izango da aurtengo?

Azaroaren 19an, igandearekin.

#### Zein da bere helburua?

Estereotipoak, aurreiritziak haustea.

#### Nork hartu dezake parte?

Edonork. Bi modutara:

1. Familian, taldean. Elkarren artean nolabaitko ahaidetasuna duten bi pertsonak edo gehiagok.
2. Dinamizatzaile gisa. Bertako eta kanpotik etorritako familien arteko harremana erraztuz.

#### Non eman liteke izena?

Mugak.eu atari digitalean (Bizilagunak atalean). Azken eguna azaroaren 10a da.

Andoaingo udaletxeko Ataria bulegoan edo Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen lantokian.

#### Nork antolatzen du?

SOS Arrazakeria eskubide berdintasunaren aldeko giza mugimendua. Banaiz Bagara, Caritas, Hurria-Sahara edota Andoaingo Udalak ekimenearekin bat egiten dute.

#### 2016ko esperientzia:

2.615 pertsona osatutako 547 familiek hartu zuten parte Euskal Herri osoan ospatu ziren 235 bazkarietan.

#### GIZARTE ZIBILA 2016 SARIA

Bizilagunak ekimena Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen saria irabazi zuen, iaz. Gizarte zibileko mugimendu eta erakundeetatik europar identitatea eta integrazioa bultzatzea helburu duten ekimenak aitortu zituzten Sariak.

#### AZKEN OSPAKIZUNA

Abenduaren 2an Kursaallean izango da; bertan Bizilagunak ekimenean parte hartu dutenek Gipuzkoa Solidarioa festa ospatuko dute.



## HERRI GALDEKETA ANDOAINEN, AZAROAREN 5EAN

# Bi mila lagunen parte hartzea herri kontsultan

Erabakitze eskubidearen aldeko kontsulta egin duten ehunka herrien artean dago Andoain, joan zen igandean geroztik. Normaltasun osoz igaro zen jardunaldia, negu giroko eguraldiarekin. Emaitza:

• Denera: 2034 boto (%16,5).  
• Bai: 1871 boto (%91,98).  
• Ez: 127 boto (%6,24).

• Zuriak: 33 boto (%1,62).  
• Nuloak: 3 boto (%0,13).  
• Errolda: 12.306 pertsona

Andoain herri kontsulta egin duten Euskal Herriko 180 herrien artean dago jada, joan zen azaroaren 5az geroztik. Udaberriari abiatutako prozesuaren amaiera izan zen, eguna gerturatu ahala antolatzaileek intentsitate handiz bizi izan dutena. Hitzaldi sorta Basteron, sentsibilizazio eta propaganda saioak, antolakuntza lanak..., herritik eta herriarentzat, tamainako eguna antolatzea ez da lan arina izan. Are gehiago, hauteskunde formalaren parekoa egitea helburu nagusitzat hartu zenean. Iritsi zen azaroaren 5a, eta deialdiari bi mila lagunetik gora bere botoarekin erantzun zioten. Kanpotik begira eskasa izan daitekeen arren, antolatzaileen poza nabarmena zen igande gauean. Horrelako ekimen bat aurrera eramatea zeinen zaila den jakitun baitziren.

Hasteko eta behin, normaltasun osoz igaro zen eguna, inolako egoera desatseginik gabe. Izatekotan, eta hori aipatzea ezinbestekoa da, eguraldia izan zen. Negu giroko eguna izan zen: Hotza, euri zaparradak eta haize bolada indartsuak. Baldintza horietan botoa ematea, bereziki Zumea plazan, meritu handiko ekintza bilakatu zen. Andoain Esan taldearen gonbiteari erantzunez, adin eta izaera ezberdineko andoaindarrak lanean aritu ziren. Hauteskunde-mahaietan, segurtasunean, informatika lanean, komunikazioan eta bestelako lanetan dozenaka lagun aritu ziren. Horietako askok herri kontsultari esker elkar ezagutu dute. Adin eta belaunaldi ezberdinetako herritarrei elkarrekin lan egitea egokitu zitzaielako. Andoaindarraren arteko elkarbizitzan sakontzeko ariketa eraikitzailea izan zen, eta huraxe izan daiteke alde aurretik aurreikusita ez zegoen lorpen on bat.

Kontsultak izan ditu bere gabeziak. Gazteen botoa erakartzea ez da lortu; kontsulta egin duten herri gehienetan bezala. Parte hartzearen portzentai apala izan da beste gabezia. Bi mila lagunen botoak jasotzea oso kontutan hartzeko datua izanik ere, estadistikoki igandean egin zen galderarekin bat datorren herrikide gehiago bizi da Andoain. Ziurrenik, igandeko hitzordua loteslea edo binkulantea izango balitz, parte hartzea handiagoa izango litzateke. Baiezkoaren aldeko gehiago hurbilduko lirateke. Eta baita, era berean, ezezkoaren aldekoak ere.



Katalunian urriaren 1ean erabilitako hautesontzi bat Andoainera ekarri zuten. Sinbolismo handiko keinua izan zen, Katalunian egoera zaila bizitzen ari direnak gogoan.

## EMOZIOA AGUSTIN LEITZAKO HAUTESLEKUAN

Erabakitze eskubidearen aldeko hainbat kidek, goizeko bederatzia emateko zirenean, emozioz beteriko unea bizi izan zuten Agustin Leitza kaleko hauteslekuan. Katalunian urriaren 1ean erabilitako hautetsontzi bat Andoainera iritsi zen, botoa emateko erabilia izan zedin. Kaletik hauteslekura sartu zuten, hauteslekuan zeudenen txalo artean. Sinbolismo handiko keinua izan zen, Katalunian hain egoera zaila bizitzen ari direnak gogoan. Une hori bideoan grabatu zen, eta segundu gutxira Euskal Herrian eta Katalunian aski zabaldua izan zen, gaur egun hain bogan dauden sare sozialen bitartez. Egunean zehar bati baino gehiagori zirrara berezia eragin zion hautetsontzi horretan botoa ematea.

Ez zen sinbolismoz beteriko ekintza bakarra izan. Eguneko lehen botoa emakume batena izan zen, eta hautetsontzi horretan botoa ematen lehena Ana Carrere alkatea izan zen. Arrazoia historian aurkitu beharra dago. Izan ere, 1933ko azaroaren 5ean emakumeek boto esku-

bidea izan zuten lehen aldiz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, estatutua bozkatzeko erreferendumean. Efemeridearekin bat egiten zenez, joan zen igandean herri kontsultak egin ziren hamahiru herrietan lehen botoa emateko aukera emakumei eskaintzea erabaki zen.

Atzoko, gaurko eta biharko emakumeak izan ziren hiru hauteslekuetako protagonistak. Agustin Leitza, esan bezala, Andoaingo alkatea. Kaleberrian, 2015eko Gure Esku Dagoren kanpaina hainbeste lan egin zuten jostunak eta Zumea plazan, azkenik, 16 urteko gazte koadrila.

Une zirrargarri ugari bizi izan ziren, egun osoan zehar. Igandean, esaterako, familia bereko hiru eta lau belaunaldi elkarrekin bozkatzera joan ziren. Botoa emateko ekintza une berezi bilakatu zuten askok. Neguko egun euritsu horretan, adinean gora doazen botuemaileak aipagarri bilakatu ziren. Askoren artean, Iñaki Arregi Moraza, Imanol Egibar, Modesta Garaialde, Miren Zarraga... Atzoko, gaurko eta biharko andoaindarr askok euren etorkizuna erabaki nahi dutela erakutsi zuten igandean.

## EMAITZA

### AZAROAK 5, IGANDEA

• Errolda: 12.306 pertsona.  
• Botoak: 2034 boto %16,50  
• Bai: 1871 boto %91,98  
• Ez: 127 boto %6,24  
• Zuriak: 33 boto %1,62  
• Nuloak: 3 boto %0,13

## ERRIFA

### BI OTORDU

Boto zenbaketa egin bitartean, Andoain Esan taldeak hilabete batzuk lehenago abian jarri zuen errifaren zozketa egin zuen. Hauek saritutako zenbakiak:

### Txertotan otordua

Saritutako zenbakia: 0802.  
Sariduna: Ainara Audikana.

### Gaztañaga sagardotegian otordua

Saritutako zenbakia: 1008.  
Sariduna: Begoña Aranburu.

## INFORMAZIOA

### AIURRI.EUS/KOMUNITATEA

Herri kontsultaren inguruko informazioa.



**HERRI GALDEKETA ANDOAINEN, AZAROAREN 5EAN**

# Emakumeentzat egun seinalatua

1933ko azaroaren 5ean, Euskadiko emakumeek botoa emateko eskubidea izan zuten lehen aldiz, orduko estatutuaren inguruko hauteskundeetan. Efemeride hori kontutan hartu zen igandeko herri

kontsulta antolatzeko garaian. Hori dela eta, hiru hautesleketan lehen botoa emakumezkoena izan zen. Horrez gain, irudi politik ikusi ziren, besteak beste, belaunaldi ezberdinetako emakumeena.



2015ean jostunak izan ziren Gure Esku Dagoko protagonistak. Haietako batzuk eman zuten lehen botoa Kaleberriko hauteslekuan. Argazkian Ana Mari, Marisa, Tere eta Lucre.



Ane, Haize, Luri..., 16 urteko gazte koadrilak lehen botoa emateko aukera izan zuen Zumea plazako hauteslekuan. Haien atzetik botoa emateko prest zeuden herritar ugari.



Ana Carrere Andoaingo alkateak, andoaindar guztien agintari gorenak, Agustin Leitza kaleko hautesleku batean lehen botoa eman zuen.



Pilar ama, Amaia eta Garbiñe alabak eta Eli biloba elkarrekin hurbildu ziren Agustin Leitza kaleko hautesleku batean.



Hiru belaunaldi batera Kaleberriko hautesleku batean, igande eguerdian. Ezker eskuin Uxue, Maritxu amona eta Pili izeba.



Lau belaunaldi batera, Kaleberriko hautesleku batean. Juana Mari amona, Izaskun alaba, Bakarne biloba eta Alara birbiloba.



HERRI GALDEKETA ANDOAINEN, AZAROAREN 5EAN

# Izaera eta belaunaldi ezberdinetakoak elkarlanean

Atzoko, gaurko eta etorkizuneko andoaindar asko elkarrekin lanean aritu ziren joan zen igandeko herri kontsultan. Dozenaka izan ziren zeregin ezberdinetan lanean aritutako herrikideak, goizeko

07:30etik gaueko 22:00ak arte. Bereziki aipagarria izan zen Zumea plazako laguntzaileen lana, haizeak, hotzak eta euriak egoera desatseginean lan egitera behartu zituelako.



Maria Angeles, Lourdes, Ion eta Iñigo Agustin Leitzako lokalean lanean aritu ziren goizean goizetik, bertan zeuden hiru hautes-mahaletako batean.



Iñaki, Merce eta Eli Zumea plazan hotzari eta euriari aurre eginez, bertan ipinitako hiru hautes-mahaletako batean.



Jaione eta Ianirek gainerako herriekin adosturiko adierazpena irakurri zuten.



Garbiñe Agirre bozeramaile lanetan aritu zen. Argazkian, Euskadi Irratian zuzeneko emanaldian.



Iñiar, Unai eta Beñat igande iluntzean Agustin Leitzako zenbaketan.



Gure Esku Dagoko Beñat Sarasolak emaitzak eskaini eta Andoain Esan taldea zoriondu zuen.



Berme eta jarraipen batzordeko kideak, gehienak Andoaindik kanpokoak, egun osoan hautesleku mahai ezberdinetan izan ziren. Eta botoen zenbaketan parte hartze erabakiorra izan zuten, zalantzak argituz.



Kaleberriko hauteslekuaren arratsaldean lanean aritu zen lantaldea, azaroaren 5eko herri galdeketa gutun-azala eskuetan zutela.



HERRI GALDEKETA ANDOAINEN, AZAROAREN 5EAN

# Herri galdeketaren osteko balorazioak

“Etorritako guzti horiei, Andoain Esan taldeko gizon-emakumeek eskerrak eman nahi dizkiegu, eguraldiaren aurpeirik gogorrenari kemenez erantzunez, herrian jarritako hiru hautesleketara gertu-

ratu eta bere botoa hautetsontzian sartzera pozik eta era baketsuan gerturatu zirelako”, Andoain Esan taldearen eskertzan irakur daiteke. Hainbat alderdik ere igandeko balorazioa egin dute.

**ehbildu**

**“Andoaindarrek demostratu zuten baditugula nahikoa baldintza, erabakitze eskubidea gauzatzeko bidean, aurrera egiteko”**

“Azaroaren 5ean Andoain Esan taldeak antolatuta, Euskal estatu burujabe bateko herritar izan nahi dugun edo ez jakiteko, herri galdeketa burutu zen Andoainen. Lehenik eta behin, atzoko eguna posible izan zedin azken urte honetan bolondres moduan lanean aritu diren herritar horiei guztiei gure eskerrak zintzoena adierazi nahi diegu.

Igandean Andoainen eman zen parte-hartzea, hilabeteetako lanaren emaitza da. 2034 andoaindar atera ginen kalera, gure botoaren bidez, gure etorkizun politikoaren jabe izan nahi dugula aldarrikatzeko. Zalantzarik gabe esan dezakegu, Andoainen egindako eta gogoa dugun jende mobilizazio handienetakoa izan zela.

Ezin aipatu gabe utzi Kataluniako egoera. Atzeraezinezko bide batean dago Katalunia, bere independentzia erabaki eta egikaritu nahi duen Errepublikari berria da. Indarraren bidea soilik duen Espainiako Estatu du aurrean, baina argi dugu, herritarren borondatea eta indarraren artean, herritarren borondatea garaila izango dela beti.

Bide propioa egin behar dugu Euskal Herrian. Propioa, baina hango ikasgaiak praktikan jarritz. Herritarren mobilizazioa eta batasuna da handik ekar ditzakegun irakaspenik baliotsuenak. Atzo Andoainen demostratu genuen baditugula baldintza nahikoak herritarren elkarlanaz aurrera egiteko; alegia, gure etorkina libreki erabakitze erreferendum bateratu eta lotesle bat lortzeko



Zumea plazako hautesleku hiru bozketan guneetan goizez eta arratsaldean aritu ziren kideak elkarrekin ateratako argazkian.

## “Joan den igandean, andoaindarrok esan dugu”



“Gure esku zegoelako, azaroaren 5ean, 2.034 andoaindarrek esan genuen zein zen gure iritzia edo nahia, luzatutako galderaren aurrean. Horietatik, 1.871 herritarrek, %91,98ak, euskal estatu burujabe bateko herritar izan nahi dute. 127k, aldiz, %6,24ak, galdera horri ezezkoa erantzun diote.

Etorritako guzti horiei, Andoain Esan taldeko gizon-emakumeok eskerrak eman nahi dizkiegu, eguraldiaren

aurpeirik gogorrenari kementsu erantzunez, herrian jarritako hiru hautesleketara gerturatu eta bere botoa hautetsontzian sartzera pozik eta era baketsuan gerturatu zirelako.

Herriko botoematea zen garrantzitsua igandean, baina, guzti hori posible egin ahal izateko, bolondresen lana ezinbestekoa izan zen. Hauen ekarpena ere biziki eskertzen dugu, emakume zein gizon, gazte zein heldu, egun guztian zehar bakoitzak bere zereginetik primeran erantzun zuelako.

Eguna pozik amaitu ge-

nuen. Igandekoa, ibilbide luzeko lasterketa honetan urrats bat izan zen. Distantzia eta iraupen luzeko lasterketari ekin beharko diogu eta, horregatik, entrenamenduan hasita gaude. Inork ez dezala pentsa, hasi eta minutu batzutarra, esprinta jo hutsarekin helmugara iritsiko garenik. Oraindik asko dugu egiteko. Pausu gehiago emango ditugu, herritar gehiago gurekin izanik.

Baginen batzuk, bagara gehiago, izango gara asko.

Mila esker, eta txalo zaparrada igandean protagonista izandako guztioi”.

**AHAL DUGU  
PODEMOS**

**“Erabakitze eskubidea babesten dugu”**

“Ahal Dugu Podemos Andoaindik erabakitze eskubidea babesten dugu, sentsibilitate guztiak errespetatzearekin batera.

Igandean Euskal estatu bate-

ko kide izan nahi dugun edo ez bozkatzeko aukera izan dugu. Andoain Esan ekimeneko bolondresen lana eskertu nahi dugu, egin duten lan guztiagatik”.



**“Kualitatiboki aztertuta, argi geratu da andoaindarrek euren etorkizuna erabaki nahi dutela”**

“Zoriondu nahi ditugu igandeko ariketa demokratikoan bozka emanaz parte hartu duten andoaindar guztiak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu boluntario lanetan ibili diren herritar guztiei. Antolaketa txalotzekoa izan da.

Kuantitatiboki aztertuta, balorazio baikorra egiten dugu eta pozik agertzen gara. Igandeko jardunaldian 2034 izan gara, baina ziur gaude gero eta gehiago izango garela, are gehiago galdeketa modu lotesle batean gauzatzen denean.

Kualitatiboki aztertuta, argi geratu da andoaindarrek euren etorkizuna erabaki nahi dutela. Etorkizuna erabakitze eskubidea dugula berretsi dute andoaindarrek, bozka ematearen ariketa demokratikoa eginez.

Hitza ezinbestekoa da elkar ulertzeko, hitza ezinbestekoa da akordioetara iristeko, hitza ezinbestekoa da herri baten nahia ezagutzeko. horregatik EAJk ezinbestekoa jotzen du herriari hitza ematea, gure etorkizuna erabakitze eskubidea praktikan jartzea”.



**Egunaren jarraipena  
Aiurri.eus/Komunitatea**



Joxe Paulo Usandizaga gogoan, aurreko asteburuan piztu zuten

## Ortzaikako karobia martxan



Karobia piztearen argazkiak eta bideoa aiurri.eus webgunean.

Bigarren urtez jarraian, Goiburu aldean, Karrika-Etxeberrieta auzunetik gertu dagoen **Ortzaikako karobia** piztu dute. Ondarearen berreskuratzean ezinbesteko eragile bilakatu den **Burdina** taldeak antolatu zuen ekimena, aurreko asteburu osoan zehar. 5.000 kilo egur erre zituzten karobian, eta igande arratsaldearako 250 kilo kare inguru egitea lortu zuten.

Geure arbasoen ofizioa eta bizimodua gogoan hartzeko ekitaldia izan zen. Larunbat arratsaldeko euri zaparradak ez zuen eragotzi, gainera, karea normaltasunez ekoiztea.

Karobia piztea ospakizun modukoa izan zen, txalapartari, bertsolari eta trikitilarien parte hartzearekin.

**Ander Otañok** eman zion hasiera ekitaldiari: "Orain 150 urte arte ia ez zegoen industriarik Euskal Herrian, eta esan daiteke gure elikadura eta bizimodurako garrantzi

*"Nekazaritzarako ongarri gisa ez ezik, karea baserrietako paretak margotzeko eta eraikuntzatan mortero gisa erabiltzen zen"*

handikoa zela karea. Nekazaritzarako ongarri gisa ez ezik, baserrietako paretak margotzeko eta eraikuntzatan mortero gisa erabiltzen zen". Ekitaldiak berarekin zituen bi helburuez aritu zen Otaño: "Ez da ahaztu behar Burdina taldea historia eduki duten eraikuntzak txukuntzen saiatzen dela, eta horrekin batera eraikuntza horien atzean dagoen historia eta tradizioa berreskuratzen dituela. Gaurko ekitaldiak, ondare materiala ez ezik ondare inmateriala berreskuratzeke balioko digu". 2011n zendu zen **Joxe Paulo Usandizaga** taldekideari gorazarre egin zioten, iaz egin be-

zala. Usandizagaren familiako kide ugari hurbildu zen ekitaldira.

### BI BERTSO

**Estebe Lopez de Munainek** eta **Ekaitz Olloto** txalaparta jo ostean, **Ion Beloki** bertsolariak bi bertso kantatu zituen, ekitaldiaren bi helburuak bikain lotuz:

*Jada sei urte igaro arren noski ez daukagu ahantzia eta hemendik bidali nahi degu gaurko hontan goraintzia. Gogoan degu gauzak iteko harek zeukan pazientzia. Senti dezakegu gure artean Jose Paulon presentzia.*

*Burdinak beti zaindu nahi digu inguruko ondarea ta horregatik hemen egotea gaur ez da nobedadea. Piztu dezagun karobia ta sortu dedin gaur karea, eta festa honi eman dezaigun merezi duen kolorea.*



Arruti karobiaren ahoan, piztearen unean bertan.



Berrondo, Beloki eta hainbat lagun karearen prestaketan.

## Asteburu euritsua, aurrekoa



Imanol Fernandez @meteoandoain Twitter erabiltzailearen argazkia eta datuak.

Eguraldi aldaketa iragarrita zegoen arren, euriak asteburu erabat baldintzatu zuen. Ezustekoak ere izan ziren, bereziki larunbat arratsaldean. Hala nola, Ama Kandida etorbidean, Sorabillako N1 errepide azpiko tunelean, Bastero kultugunean edota OPUA inguruan. Puntualki bide mozketak izan baziren ere, ezbeharrik ez zen izan.

### Olazar (Euskalmet):

Asteburu: 110,4 mm.  
Larunbata: 66,2 mm.  
Igandea: 44,2 mm.

### Sorabilla:

Asteburu: 119 mm.  
Larunbata: 65,4 mm.  
Igandea: 53,6 mm.

### Plazaola:

Asteburu: 115,2 mm.  
Sabado 65,9 mm.  
Domingo 49,3 mm.

## Kataluniako Errepublikaren aldeko adierazpena



Bozkatu zuten unean. Aldeko botoak hamar izan ziren.

Andoaingo Udalak Kataluniako Errepublikari "aitortza, errespetua eta afektua" erakustea onetsi zuen joan den asteartean egin zuen ezohiko udalbatzan. Udalak bat egin zuen Katalunian burujabatzaren aldeko prozesuarekin, bost puntuz osatzen zen mozioaren eskutik. EH Bilduren eta EAJ-PNVren aldeko hamar boto jaso zituen, eta PSE-EE, Gane-

mos eta Irabaziren kontrako sei boto; abstentziora jo zuen atxikitu gabeko zinegotziak. Ganemos eta Irabaziko bi zinegotziek mozio alternatiboa aurkeztu zuten; besteak beste, Katalunian abian jarritako aldeko prozesuaren eta 155. artikulua aplikatzearen aurka. Ez zen bozkatu bigarren mozio hori, lehenbizikoak aurrrera egin baitzuen.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia





## KIROL ALBISTEAK

### Zanpatuzen mendi bizikleta irteera azaroaren 18an



Urnietarrek urtean behin mendi bizikleta irteera antolatu ohi dute.

Zanpatuz mendi taldeak bi irteera antolatu ditu, azarorako. Azaroaren 18an izango da lehena, larunbatarekin. **Mikel Bergara** eta **Manex Altuna** antolatzaileek Andatza aldera bizikletaz joateko ibilbidea prestatu dute, Lasarte-Orian barrena, Andatzatik Urnietara bueltatzeko. Guztira 30 kilometro, eta hitzordua herriko plazan egin dute, goizeko 09:30ean. Ez da alde aurretik izenik eman behar izango, nahikoa da herriko plazara azaltzea.

Mila metroko desnibela izanen du, eta erritmoa lasaia izango bada ere, antolatzaileek mendiko bizikletan ibiltzeko ohitura duten herritarrei gerturatzeko deia egin diete. Besteak beste, bizikletako aldagailua eta balaztak ondo errebisatzeko gomendioa egin dute antolatzaileek. Janaria eta edaria norberak eramango du, eta eguraldiaren arabera, neguko arropa eramatea ere gomendatzen da. Itzulera eguerdia pasata aurrekusten da.

#### MENDI IRTEERA AZAROAREN 25EAN

**Maxi Manso** izango da antolatzailea, eta aukeratu duen mendia Udalaiz da, Arrasaten dagoen 1.120 metroko altuerako mendia. Harritsua da, eta irteera egiteko derri gorrezkoa da eguraldi lehorrer, Udalaizteko jaitsiera arriskutsua baita zorua irris-takorra dagoenean. Eguneko eguraldiaren arabera, irteera egin edo ez aztertuko da, eta eguraldia txarra balitz, Urnieta inguruan ibilbide errazagoa egitea proposatuko zaie parte hartzaileei.

Irteera honetan parte hartzeko izena eman behar da Xauxar eta Kantoi tabernetan, edota Ikasmin akademian. Ohi bezala, bazkideek 10 euro ordainduko dute, eta bazkide ez direnek 15. Azaroaren 22ra arte epea zabalik dago. Arrasateko Udala auzotik abiatu eta Besai-derantz joatea da asmoa, han dagoen hildako mendizaleen omenezko oroigarria ezagutzeko.

### Ganbara saski taldea

**AURREKO JARDUNALDIA:**  
Inter 80-50 Ganbara SenM  
Ganbara KadM 60-74 Goierri  
TAKE 40-18 Ganbara InfM

**PARTIDAK ALLURRALDEN:**  
Ganbara InfM-Andraitz. 09:00.  
Ganbara SenM-Oiartzun. 19:15.  
Azaroak 11, larunbata.

### Eskubaloiko emaitzak

**SENIOR MUTILAK**  
Tolosa CF B 20-26 Leizaran  
Pulpo 25-23 Urnieta  
**SENIOR NESKAK**  
Ordizia 27-24 Leizaran

**JUBENIL NESKAK**  
Bera Bera 25-13 Urnieta  
**JUBENIL MUTILAK**  
Zarauz KE 31-28 Leizaran  
Hondarribia 22-37 Urnieta

Ondarretako Ainhoa Tolosak urrea lortu du mundu txapelketan

## “Kayak surf kirol jarduera ezezaguna da oraindik”



Ainhoa Tolosa Ondarreta ikastetxeko irakaslea, Ipar Irlandan jokatu zen munduko txapelketan urrea lortu zueneko uean.

Gorputz hezkuntzako irakasle da **Ainhoa Tolosa** Andoaingo Ondarreta Ikastetxean. Ipar Irlandan jokatu zen Kayak surfeko munduko txapelketan urrea lortu du piragua motzeko modalitatean. Euskal selekzioa ere fin aritu da, hamahiru domina lortuz.

**Munduko txapelkun titulua ez duzu behin soilik lortu. 2009an eta 2013an ere munduko txapelkun izan zinen piragua luzearekin, eta 2011n zilarra lortuzenuen. Nolako izan da piragua luzetik motzerako jauzia?**

Hamabi urterekin hasi eta hogeita zortzi izan arte slalom-ean aritu naiz. Kayak Surfarekin antzekotasuna duenez, errazago moldatu nintzen.

**Euskal Seleksioan 13 domina lortu dituzue: urrezko bi, zilarrezko zazpi eta brontzezko lau. Irlandako txapelketarekin bost munduko txapelketa daramatza bizkarrean Euskal Seleksioak...**

Bai. Beldurra genuen. Nahiko pareko geunden Ingalaterrarekin, eta bigarren geratu zirela entzutean izugarritzko poza hartu genuen.

**Euskal Seleksioa munduko txapelketara joateko bidea ez zen erraza izango...**

Diru-laguntzak lortzea ezinbestekoa da; bestela ezingo genuke horren talde handia mugitu. Aurten European izan denez, he-



Ainhoa Tolosa kirolari eta irakaslea.

*“Mutientzako egina den kirola dirudi, baina egia esan oso parekatuta gaude”*

galdiak ez dira hain garestiak izan. Horri esker egun gehiagotan eta baldintza hobekoetan egoteko aukera izan dugu.

**Zer egin zaizu gogorrena txapelketan?**

Gogorrena eguraldia izan da, hotza eta haizea. Lau egunetan zehar egunero bitan edo hirutan sartu izan gara uretara, hogei minutuko mangak egitera. Oso intentsoa da. Nekea nabaritzen da.

**Nolako harrera du Kayak Surfak euskal herritarren artean?**

Jende askok ez du oraindik Kayak Surfa ezagutzen. Itsasoan ibiltzen diren surfistek ezagutzen gaituzte beldurra izaten di-

gutelako. Egoera kontrolpean dugula ikusten dutenean lasaitu egiten dira. Gainerakoan, medioetan agertu gabe ez zara ezaguna. Egia esan, orain edukitzen ari den zabalkundearekin, geroz eta ezagunagoak izango garelakoan nago.

**Nolako da emakumeen parte hartzea Kayak Surfean?**

Hazten doa, poliki-poliki. Mutientzat egina den kirola dirudi, baina egia esan oso parekatuta gaude. Mutilek mugimendu erradikalagoak egiten dituzte. Sarritan elkarrekin hartzen dugu parte manga berdinetan, Open deitzen den kategorian, eta neskek iritsi izan gara finalurrekora edo finalera. Polit da neska eta mutilen arteko lehia hori.

**Munduko txapelketaren ostean, ospakizuna etorriko zen...**

Bilboko garagardotegi batean harrera egin ziguten. Prentsa ere bertaratu zen. Polit izan zen.

**Hemendik bi urtetara Perun jokatuko da munduko txapelketa. Begirada jada han jarria izango duzu...**

Hantxe, bai. Oso erakargarria da Peru bezalako leku batean munduko txapelketa ospatu ahal izatea. Olatu oso onak daudela esan digute. Haginak luzatuta ditugu jada Perura joateko.





## KIROL ALBISTEAK

Futbolean eta pilotan aritzen da Andoaingo gaztea

# Jokin Izagirre Andoaingo gazte kirolaria

Jokin Izagirre Andoaingo gaztea Real Sociedad futbol taldean jokatzeko ari da. Liga Genuine izeneko txapelketan ari da parte hartzen, Real Sociaderek ahalmen urriko pertsonekin osatu duen talde berrian hain zuzen. Atzegi elkartearekin elkarlanean antolatatu du futbol talde hori Realak.

Liga Genuine Estatu mailan aurrean eratu den ekimena da, kolektibo horretako pertsonen futbol normaltasunez jokatzeko aukerak emateko asmoz. Hemezortzi taldek osatzen dute Genuine txapelketa: Espanyol, Athletic, Atletico de Madrid, Osasuna, Valentzia, A Coruña, Vila-Real, Levante, Reus, Nastic, Mallorca, Celta, Huesca, Las Palmas, Girona, Rayo Vallecano, Cordoba eta Real Sociedad.

Urrian ekin zioten 2017/2018 denboraldiari, eta lau fasean jokatu da. Lehen fasea urriko 6-8ko asteburuan jokatu zen Vila-Realen. 2018ko urtarrilean jokatu da bigarren fasea, 19-21eko asteburuan. Hurrengo biak, berriz, Tarragonan apirilaren 13-15ean eta Vigon ekainaren 8-10ean izango dira.

Zortzi jokalariko taldeak osatuz jokatzeko ari dira partidak; hamabi minutuko lau zatirekin. Kirol emaitzak ez ezik, neurketan zehar jokalariek, entrenatzaileek eta jarraitzaileek erakusten duten jokaera puntuagarria izaten da. Zer esanik



Jokin Izagirre futbolean Liga Genuine izeneko txapelketan ari da parte hartzen Real Sociedad futbol taldearekin.

ez; fair play-a oso kontutan hartzen da.

### KIROLZALE AMORRATUA

Jokin Izagirre Mazkieran andoaindarra Real Sociaderek jo-

*Futbolean Real Sociedad taldearekin jokatzeko ari da; pilotan Gaztelekurekin*

kalarietako bat da. Liga hasi baino bi hilabete lehenago Real Sociedad taldeak taldea osatzeko deialdia egin zuen, eta Jokin izan zen aurkeztu zene-tako bat. Hautaketa prozesua gaudituta, Egoitz Ugartemendia entrenatzailearen agindutara jarri zen. Taldea mistoa da; guztien artean bi emakumezkoak baitira.

Izagirre defentsa postuan aritzen da, ezker hegalean. Realak Atletico de Madrid eta Mallorcaren aurka egin zuen debuta; Jokin oso gustura aritu zen bi talde horien aurkako partidatan, Aiurriri adierazi dionez. Jokin kirolari amorratua da, eta Gazteleku pilota eskolako kide ere bada. Pilotan aritzeaz gain, taldearen laguntzaile fina da.



Jokin Izagirre Zubietan, taldeekin batera.

## Areto futbol txapelketa

### 4. JARDUNALDIA

Academia G.F 3-3 Academia London  
Ekhia 3-2 Irunberri  
Burdiñdegia 2-1 Akerbeltz  
Ganbara Taberna 6-7 Bar Txalaka  
Ekaitz 8-6 Powerade  
Lanbroa 4-2 Pausoka  
Dad Kutxa 5-3 Olajauna

### 5. JARDUNALDIA

Powerade-Hogar Extremeño  
Lar, 11. 13:45 Allurralde

Centro Extremeño-Ekaitz  
Lar, 11. 14:45 Allurralde  
Txalaka-Keler  
Ig, 12. 09:15 Allurralde  
Olajauna-Ganbara  
Ig, 12. 09:00 Arrate  
Irunberri-Dad Kutxa  
Ig, 12. 10:00 Arrate  
Pausoka-Ekhia  
Ig, 12. 11:00 Arrate  
Academia London-Lanbro  
Ig, 12. 12:00 Arrate

Akerbeltz-Academia G.F  
Ig, 12. 13:00 Arrate

### SAILKAPENA

1 Gorostidi	10
2 Centro Extremeño	9
3 Keler	9
4 Bar Txalaka	9
5 Ekhia	9
6 Academia G.F	7
7 Lanbroa	7
8 Dad Kutxa	6

## Txirrindularitza hizpide



Parte hartzaileak Bastero kulturunean, larunbat arratsaldean.

Joan zen larunbatean Andoaingo txirrindulari eskolak hitzaldia antolatuta zuen, eta bertara 130 lagun hurbildu ziren, gehienak Gipuzkoa inguruko txirrindularitzazaleak. Lehenik eta behin Felix Ugaldes eskolen garrantziaz eta kirol ezberdinen arteko ezberdintasunen inguruan aritu ziren, batez ere maila profesionalari dagokionez. Ondoren, Ane Santesteban aritu zen. Italiako Ale-Cipolini taldean lehiatzen duen txirrindulari profesionalak bere ibilbideaz hitz egin zuen, emakumeek profesional mailara iristeko dituzten zail-

tasunak aipatuz. Era berean, ikasketak ez direla utzi behar azpimarratu zuen, antolaketa egoki batekin eguneko 24 ordu denetarako astia ematen dutela gaineratuz.

Ume bat besterik ez zela hasi zuen Mikel Iturriak bere ibilbidea, Andoaingo txirrindulari eskolaren eskutik. Azkenik, Jon Odriozolak Euskadi Basque Country - Murias taldearen proiektua azaldu zuen, euskal txirrindularitzarako duen garrantzia aldarrikatuz. Hizlariek, txalo zaparradaz gain, eskolaren ikurra eta lore sorta bana jaso zuten.

## Iraola eta Urbistondo Andoaingo Mendi Astean



Andoni Urbistondo urnietarra.

### AZAROAK 14, ASTEARTEA 20:00 EUSKALDUNA:

"Bistare bistare"  
Andoni Urbistondo,  
Joseba Oiartzabal.  
"Emanaldiak 2016ko udazkenean Nepalen, Annapurna mendigunean hiru astez egindako trekking-a azaltzen du. Mendiak, bertako jendea, 6.500 metroko mendira igotzeko ahalegina, kanpin

dendan egindako ordu luzeak, 2015ean Nepal astindu zuen lurrikararen arrastak... Emanaldiak alpinismoaren mitifikaziotik urruntzeko asmoa du. Alegia, leku eder eta garaiak bisitatu daitezkeela munduan zehar, norberaren erritmoan, bide zabaletatik eta fisikoki edo ekonomikoki sekulako ahalegina egin gabe".

### AZAROAK 13, ASTELEHENA 20:00 EUSKALDUNA:

"Peru, hirutik bat"  
Jon Iraola.

### AZAROAK 16, OSTEGUNA 20:00 EUSKALDUNA:

"Porrotaren alde",  
Alberto Iñurrategi.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu. publicitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04. ISSN: 1698-4870. **Tirada:** 6.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

AZAROAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

## Zinema

- Andoain, Bastero**
- Toc toc**  
Larunbata, 11. 19:30, 22:00.  
Igandea, 12. 19:30.  
Astel., 13. 19:30, 22:00.
- Hurrengo asteburuan:**  
La cordillera, Deep.

## Urnietan

- Canta, haurrentzat.**  
Azaroak 12. 17:00. 4 euro.

## Musika

- Andoain, Bastero**
- Gora Kaletxiki Band** eta elkar-teetako danbor jotzaileen eskutik, Santa Zezilia kontzertua.  
20:00 Santa Krutz eliza.  
Azaroak 11, larunbata.
- Atom Rhumba, Saio naiz** Andoaingo Gaztetxearen urteurrenean.  
22:30 Gaztetxea.  
Azaroak 11, larunbata.
- Santa Zezilia zikloa:** "Si las mujeres mandasen", Masa Coral del Ensanche de Bilbaoren eskutik.  
21:30 Bastero.  
Azaroak 17, ostirala.

## Bazkaria

- Andoain**
- 59ko kintoen ospakizuna. Bazkaria: Txertota jatetxea.  
Azaroak 11, larunbata.

## Sariketa

- Andoain, Bastero**
- Martin Ugalde ipuin lehiaketa.**  
18:30 Sari banaketa.  
Azaroak 9, osteguna.

## Antzerkia

- Andoain**
- "Amour" haur ikuskizuna.  
17:00 Bastero. 4 euro.  
Azaroak 12, igandea.
- Urnietan**
- "La casa de la llave", antzerkia gazteleraz.  
19:30 Sarobe.  
Azaroak 19, igandea.

## Farmaziak

- Andoain**
- Arzallus:**  
Aita Larramendi, 26.  
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
- Urnietan**
- Odriozola:** Idiazabal, 18.  
Gauetz: Etxebeste (Hernani).  
Azaroak 4 eta 5.

## Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- "Palimpsesto".  
Azken eguna: Azaroak 11.
- "Sourires", Anne Broitmanen eskutik. Irekiera:  
19:00 Erakusketa gela.  
Azaroak 24, ostirala.

## Ekitaldia

- Andoain**
- Elkarbizik Oroimenaren Egunean**, indarkeriaren biktimak gogora ekarriko ditu.  
19:30 Lopez de la Calle parkea.  
Azaroak 10, ostirala.

## Tailerra

- Urnietan, Sarobe**
- Autodefentsa feminista tailerra**, Emaginen eskutik. Intereza duten emakumeek azaroaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, Bertan bulegoetan.  
09:00-13:00 / 15:00-17:00.  
Azaroak 11, larunbata.

## Bertsoa

- Durango**
- Aitor Mendiluze** andoaindarrak kantari arituko da Euskal Herriko bertsolari txapelketan. Eitb-tik zuzenean ikusteko aukera.  
Azaroak 12, igandea.

## Lehiaketa

- Andoain**
- Udalak **2018ko egutegia** herritarren argazkiekin osatu nahi du.  
Oinarriak: andoain.eus.  
Aurkezteko epea:  
Azaroak 13, astelehena.

## ZORION AGURRAK

ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK
Gure amonak azaroaren 11n urteak beteko ditu. Milesker beti gure alboan zaudelako. Etxekoak.	<b>Maddalenek</b> kurteko bat egin zuen urriaren 22an eta <b>Xabatek</b> 6 urte azaroaren 7an. Zorionak bioi! Muxu handia familieren partetik.	<b>Aimarrek</b> eta osaba <b>Joxemarik</b> urteak egun berean bete dituzte: azaroaren 6an. Zorionak, bihotzez, bioi! Aitatxo, amatxo eta Aiara.	<b>Hodeik 7</b> urte bete zituen azaroaren 8an. Muxu handi bat etxekoan partetik. Zorionak!
<b>URNIETA</b>	<b>ANDOAIN</b>	<b>ANDOAIN</b>	<b>ANDOAIN</b>

## MERKATU TXIKIA

**MERKATU TXIKIA # SALMENTA**  
Ford Focusa salgai, 17 urtekoa. Andoain: 629 068 158.

## Heziketa hizpide Andoainen

Andoaingo Udaleko Gazteteria lansailak, AGIPAD elkartearen menpekotasunean aurrerantz hartzeko taldeko profesionalekin elkarlanean, gurasoen kezkei erantzuna emateko bi hitzaldi antolatu ditu:

- Azaroak 15, asteazkena:**  
Basteroko ekitaldi aretoan 18:30ean, DBHko ikasleen gurasoentzat.
- Azaroak 29, asteazkena:**  
Basteroko ekitaldi aretoan 18:30ean, Batxilergoko ikasleen gurasoentzat.

## Kontzertua elizan

**Santa Zezilia** musikariaren zaindaria dela eta, musika kontzertua entzun ahal izango da Santa Krutz ermitan larunbat honetan, larunbatarekin, **Gora Kale Txiki Bandaren** eta Andoaingo elkartetako danbor joleen eskutik. Ilunabarreko 20:00etan hasiko da kontzertua, eta aurretik kalejira egingo dute, Goikoplazatik abiatuta. Hiru zatitan banatuko da kontzertua. Lehenengoa instrumentala izango da erabat.

Bigarren zatian, *Xalbadorren heriotzean*, *Lau teiltatu*, *Eperra eta Behin batean* *Loiolan* doinuak entzun ahal izango dira. Andoaingo elkartetako danbor jotzaileen hotsak nagusituko dira hirugarren zatian. Gogotsu aritu dira elkartetako ordezkariak entseguetan, eta ilusioz daude jendaurrean eskaintzeko emanaldia. Hiru doinu interpretatuko dituzte; *Andoain*, *Santa Krutz martxa* eta *Txarangatzen* lan berria.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: AZAROAK 17, OSTIRALA